

berriak Triforio-tik



araba
álava



Aterpetxeak 10 urte bete ditu

2012ko azaroaren 12an ireki zituen ateak Katedraleko Aterpetxeak, 89 plaza eskainiz. Hirigune historikoan dago, Santa Maria Katedraletik metro gutxira. Martxan jartzeak, jasangarritasunarekin, energia-eraginkortasunarekin, irisgarritasunarekin, komunikaziorako eta informaziorako teknologia berrien ezarpenarekin eta bisitariaren erosotasunarekin eta segurtasunarekin konprometitutako ostatu-eredu baten aldeko apustua ikusarazteko aukera eman zion Santa Maria Katedrala Fundazioari.


10 urte hauetan, Aterpetxea abentura ugarriren, pasadizo askoren, ekitaldi handien, baina, batez ere, adiskidetasun handiak



sortzearen lekuko izan da. Fundaziotik eskerrak eman nahi dizkiegu instalazio horietatik igaro diren guztiei, haien adeitasunarengatik eta utzi dizkiguten oroitzen onengatik. Eta, era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu historia hau posible egin duten pertsona guztiei: eraikinak zaharberritzen aritu zirenei, gurekin lan egin eta beste bide bati ekin ziotenei eta, batez ere, familia handi honetako kide izaten jarraitzen dutenei. Eskerrik asko abentura handi hau partekatzeagatik!



Goitik beherako eraldaketa. Konparaziozko irudietan ikus daitekeenez, egungo aterpetxea hartzen duten eraikinak birgaitzearen aurretik oso egoera txarrean zeuden. Projektua martxan jartzeak eraikin horiek errotik eraldatzea ahalbidetu zuen, eta, horrela, Gasteizko alde zaharra hirigintzaren eta gizartearen ikuspegietatik berreskuratzen lagundu zuen.



Arabako Ondarearen “Elementu txikiak” buruzko azken liburuaren aurkezpena

Hilaren hasieran, Arabako Foru Aldundiak argitaratutako “Vitoria-Gasteizko Kuadrillako Ondare arkitektonikoa. Elementu txikiak” liburuaren aurkezpena egin zen Santa Maria Katedralean. Liburu horrekin Arabako zazpi kuadrilletako ondarearen elementu mota honi eskainitako zikloa osatzen da. Zikloa 1998an Gorbeialdeari eskainitako bolumenarekin hasi zen.

Obraren arduradunek adierazi zuten bezala, lan horrek Arabako herrien eguneroko bizitzarako oso garrantzitsuak izan ziren eta galtzeko arriskuan zeuden arkitekturako oso elementu zehatzak bistaratzen ditu. Katalogatutako elementuen artean iturriak, garbitegiak, karobiak, teilategiak, errota, burdinolak, zubiak, kortak, elur-putzuak, bola-eta pilota-jokoak edo gurutzadurak daude, besteak beste.



Gasteizko Kuadrillari eskainitako argitalpenak amaiera eman dio duela 24 urte Gorbeialdeko Kuadrillari eskainitako lehen liburukiarekin hasi zen berreskuratze lan handiari. Ondoren, Arabako Lautada (2002), Arabako Mendialdea (2003), Arabako Errioxa (2004), Añana (2008), Aiara (2008) etorri ziren, eta, inbentarioak egokitu ondoren, orain Gasteizi eskainitakoa egin da.

Guztira, zazpi liburukietan 12.000 kultur ondasun daude inbentariatuta lurralde osoan, eta horietatik 5.000 Gasteizen. Bil-

duma osoa era digitalean eskuragarri dago Ondare Historiko-Arkitektonikoa-ren Zerbitzuaren webgunean, helbide honetan: <https://labur.eus/OndareAraba>

Hitzaldiaren amaierako une berezi batean, **Vitu Palaciosi**, bilduma honen arimari, eskerrak eman zitzaizkion, lan hau burutzeko eta ondareari eskainitako bizitza osorako egindako ahaleginagatik. Fundaziotik bat egiten dugu ome-naldi honekin.



Bayonne Centre Ancien elkartearen bisita

Santa Maria Katedrala izan zen, joan den urriaren 7an, Gasteizko Ensanche XIX eta Baionako Bayonne Centre Ancien elkarteek, ondarea kontserbatzeko eta hiria birgaitzeko estrategietan esperientziak eta ezagutza partekatuzko antolatutako topaketaren agertokia. Lapurdiko elkarteko ordezkarien bisita Gasteizko ordezkariak batek Baionara bisita egin eta hogeita egun eskasera izan zen. Bisita horretan, hiriaren bilakaerari buruzko xehetasunak ezagutu ahal izan zituzten: harresiak, Errobi eta Aturri ibaien ertzak, ondare arkitektonikoa, kasamata zaharrak, Arkitekturaren eta Ondarearen interpretazio zentroa, besteak beste.

Santa Maria, Pisan egindako Europako Katedralen Konferentzian

Santa Maria Katedrala Fundazioak Opera della Primaziale Pisanak antolatutako Europako Katedralen Konferentziaren hamai-kagarren edizioan parte hartu zuen joan den urriaren 27an. Aurtun, jardunaldiak 'Zientzia eta zaharberritzea. Tradizioaren eta kontserbazio-trebetasunen berrikuntzaren arteko elkarrizketa' gaiari buruzkoak izan ziren. Fundazioaren ordezkaria Leandro Cámara izan zen, Santa Maria Katedrala zaharberritzeko lanen arkitekto arduraduna, eta 'Santa Ana Ataria zaharberritzeko lanetan datuak erregiratuzeko GIS sistema irekia' hitzaldia aurkeztu zuen.

